

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

IDAZKARITZA OROKORRA

Errakuntza baten zuzenketa 2019/3358 iragarkian

Diputatu Nagusiaren 425/2019 Foru Dekretua, urriaren 14koa. Deialdia onestea toki- edo eskualde- mailako euskarazko hedabideen jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko, 2019ko ekitaldian.

ALHAO 2019/3358, urriaren 23koa, 123/2019 zenbakian, 1. orrialdean errakuntza bat aurkitu da, eta zuzenketa egin behar da.

Esaten duenean:

Diputatu Nagusiaren 425/2019 Foru Dekretua, urriaren 14koa. Deialdia onestea tokiko edo eskualdeko komunikabideek euskaraz jarduten dezaten 2019ko ekitaldiko laguntzak emateko.

Diputatu Nagusiaren Sailak laguntza deialdia proposatzen du tokiko edo eskualdeko komunikabideen jarduerak euskaraz izan daitezen finantzatzeko 2019ko ekitaldian.

Esan behar du:

Diputatu Nagusiaren 425/2019 Foru Dekretua, urriaren 14koa. Deialdia onestea 2019ko ekitaldian toki- edo eskualde-mailako euskarazko hedabideei diru-laguntzak emateko.

Diputatu Nagusiaren Sailak laguntza deialdia proposatzen du toki- edo eskualde- mailako euskarazko hedabideen jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko, 2019ko ekitaldian.

Gasteizen, 2019ko urriaren 23an

Euskararen Foru Zerbitzburua
JOKIN LARRAÑAGA LARRAÑAGA